

# BIZKAIKO "KORUEN EGUNA" URKIOLAN

*Eskariak erdibana*



**1**

Gaur Urkiolan alkatu gara  
Bizkai aldeko Koruak,  
alkar ikusiz, alkar berotuz,  
alkar emonaz eskuak.  
- Gure Jainkoak entzun daizala  
gure otoitz ta kantuak,  
lagun gaizala hain maite dogun  
Urkiolako Santuak.

**2**

Jesus mudura jaio barritan  
aingeru pilak kantari,  
Koruak kantuz: "Ondo etorri"  
gugana Datorrenari.  
- Abenduan gu eske gaukazuz  
otoitz, kantu ta eskari:  
"Gora Zu, Jauna", eta bakea  
emon gure Herriari.

**3**

Gure Eleizan Abendua da,  
entzun da: "Urten bidera",  
Salbatzailea gugana dator  
bizia barriztatzerara.  
- Zatoz bai, Jauna, zatoz gugana,  
ikus gure egoera!  
Zu gure bila, gu zure bila  
maiteminduen antzera.

**4**

Laiko santuak gura dauzala  
Frantzisko Erromakoak,  
berak dinonez: "Sotana eta  
mantelinarik bakoak".  
- Isuri, Jauna, Espiritua  
eta itzartu laikoak,  
gaur munduaren erdian zure  
testigu izatekoak.

**5**

Koru ta herri senitarte lez  
gabiltz poz ta doluetan,  
Jauna goralduz, alkar gozatzuz  
gure soinu kantuetan.  
- "Gora Jainkoa", kantuz dinogu  
eleizan gorespenetan,  
lagun eiguzu gores zaiguzan  
anaiarteko lanetan.

**6**

Urkiolako Santutegian  
"Koruen egun" alaian,  
Eleiz bizitzan dogun dohaia  
abestiz agertu nahian.  
- Jauna, sendotu gaizuz fedean  
kristau alkarteko mahaietan,  
arnas barria hartu dagian  
gure Eleizak Bizkaian.

A. Martzel